

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Egungo gizartean ezinbesteko garrantzia dauka hizkuntza berriak ikastea. Zoritxarrez, denok ez dugu aukera hizkuntza-akademia batera joateko; izan ere, batzuetan gure ekonomia eta daukagun denborak ez digu aukerarik ematen. Hori kontuan hartuta, gure plataforma interneten bidez denez, bezero asko edukiko ditugu arestian aipatutako arazoa dutenen artean.

Hasieran, gure plataforma txikia haz dadin, sare sozialen bidez ezagutzera emango gara. Dakigunez, *Instagram* aplikazioak milioika erabiltzaile dauzka, beraz, aukera bikaina da gure proiektua ezagutarazteko eta honi buruzko ezaugarri eta xehetasun guztiak emateko. Modu honetan, bezero kopurua handitzen joango da eta edozein arazo edo zalantza izanez gero, gurekin harremanetan jartzea oso erraza izango da, telefono, posta elektronikoa edo edozein sare sozialen bitartez.

Horretaz gain, behin gure plataforman erregistratzean eta erabiltzaileak direnean, laguntza pertsonalizatua eskainiko diegu eguneko edozein unean zehar asteko egun guztietan. Baina nola egingo dugu? Une oro hizkuntza bakoitzeko irakasle bat gutxienez egongo da laguntzeko prest eta baita ere, ikasle bakoitzak tutore pertsonal bat izango du edozein zalantza galdetzeko. Beraz, nahiz eta goizean, arratsaldean edo gauean ikasi urgazteko prest egongo diren profesionalak egongo dira eskura laguntza pertsonalizatu bat eskaintzeko.

Ezinbestekoa da hizkuntza bat ikastea aurrerapenak nabarmenak izatea; horregatik, gure plataforman aktualizazio berriak egongo dira ia astero. Bestalde, hizkuntza desberdinetan askotariko mailak daudenez, bakoitzean egokitutako materiala eskuragai egongo da. Gainera, gaurkotasun-albisteak jorratuko ditugu hizkuntza bakoitzeko ulermen maila neurtzeko eta hobetzeko, ordea, bezeroei dagokienez, beti egongo da material berria euren ikasketekin modu dibertigarri eta entretenigarri batean jarraitu ahal izateko, beti ere aurrerabide sakon bat jarraituz.